




xa **sencillamente** transformar la realidad



elroto.elpais@gmail.com

Erantzukizunik ez saihestu



irudia

HausNarketa

Gure gizarteetan aberastasuna banatzeko tresna publiko gutxienetarikoa bat zergak dira, zerbitzu unibertsalak sustatzeko balio dutelako, gehikortasunez biltzen diren ekarpenei esker (zenbat eta aberatsagoa izan, hainbat eta gehiago ordaindu).

Dena den, zerga-politikak ez dira behar den bezain gehikorrak, ezta ere enpresa eta pertsona orok haien betebeharrak betetzen. Izan ere, Estatu espainiarrean Barne Produktu Gordinareneko %20-25ak dagokion zergak ez dituela ordaintzen uste da, eta ezkutuko ekonomiak 260.000 milioi euro zenbatzen ditu. Gauzak honela, sartu ez diren kuotak 70.000 milioi euro baino gehiago dira urtero, iruzur orokorraren %71-ren arduradunak dirutza eta enpresa handiak izanez.

Izan ere, Estatu espainiarreko biztanle gehienek "iruzur handia" dagoela eta zergak ordaintzerakoan "ia mundu guztiak" engainatzen duela uste dute... nahiz eta presio fiskala Espainian %31,5 eta Europako batz bestekoa %40,4 izan.

Zifra hauek (diru-sarreraren galera) kontrastatzen dira krisialdiari aurre egiteko gobernuek bultzatzen ari diren neurriekin: doikuntzak eta murrizketak, batez ere gizarte politikan.

Egoera honetan, gizartea bidezkoagoa eraikitzeke behar den zerga-politikaz geure buruari galde diezaiozun, eta zein neurritan gure betebeharrak (zergen eta gizartearen arloetan) betetzen ditugun.

ekintza

Errenta 2011 kanpainaren bitartean, zerbitzu publikoak zergez sustatzeko **gizarte-erantzukizunari buruz hausnartzera** gonbidatzen zaitugu. Dagozkizun betebeharrak zeharo betetzea proposatzen dizugu, bai zerga guztiak ordaintzen, bai edozein motatako iruzurra saihesten(*).

Beste alde batetik, ekintza zehatz bat egitera ere gonbidatzen zaitugu: zure **Ogasuneko arduradunari gutun bat bidali** eta gutun horretan adieraz ezazu zerga-politika gehikorragoaren (Europar Batasunaren antzekoa) alde zaudela. Era berean, iruzur fiskalaren kontrako neurriak eskatzen dituzula eta, gizarte zerbitzuak mantentzeko eta garatzeko baldin bada, kuota handiago ordaintzeko prest zaudela, bereziki krisialdi honetan. (Gutun eredia eransten dugu).

(*) Ogasuneko ikerketa baten arabera, "gustuko" iruzurrek hauek dira: BEZ saihestea, faktura faltsuak sortu, "beltzez" kontratatu, merezi ez dituen diru-laguntzak jaso, kontratupeko zerbitzuak ez bete, kapitalak estali eta nazioarteko iruzurreko eragiketak burutu.